

JOKABIDE KODEA

KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUA

APLIKAZIOA

1.1. Irismena

Jokabide Kode hau Eika taldeko kide guztiek edo kooperatibaren izenean edo kooperatiba ordezkatzuta jarduten duten guztiek bete beharko dute.

1.2. Kodea betetzeko obligazioa

Jokabide Kode hau derrigor bete behar dute Eika taldeko pertsona guztiek, eta baita Eikako kontu ikuskatzaile, aholkulari eta hornitzaileek ere.

2. JOKABIDE ARAU OROKORRAK

2.1. Aplikatu beharreko legeria

Eikak negozioak egiten dituen herrialdeetan indarrean dauden lege eta araudiak bete behar dituzte EIKA taldeko pertsona guztiek.

Horretarako, Eikak arlo bakoitzean ezarri beharreko lege betekizunen zerrendaren berri emango du. Eta aldian-aldian betetze maila berrikusiko du Sistemari egiten zaizkion barne auditorien bitartez.

2.2. Ustelkeria eta eroskeria

Ustelkeria eta eroskeria mota guztiak debekatuta daude, bai modu aktiboan egindakoak eta baira modu pasiboan egindakoak ere. Debekatuta dago hirugarrenei opariak egitea, hau da, duen balioagatik kortesia baino zerbait gehiago dela ulertu daitekeen zerbait eskaintzea eta, gainera, Eikari bere aldeko tratamendua eman diezaioten helburuarekin egitea.

Eikak ezin ditu alderdi politikoetako hautagaiak finantzatu, ezta alderdi politikoak ere.

2.3. Kontuak ematea

Eika Koop. Elkartek aginte eskudunen aurrean erantzungo du aplikatzen zaizkion lege eta arauak lotutako gaitan. Era berean, Eikako Zuzendaritzak kontuak emango dizkie kooperatibaren organo eskudunei, eta baita bazkideei ere, kooperatibaren urteko Batzar Nagusian.

2.4. Gardentasuna

Eika Koop. Elkartek kudeaketa gardena egingo du gizartean eta ingurumenean eragiten duten erabakietan eta jardueretan. Eskuragarri izango ditu (kioskoan, dagozkien pertsonen esku) ingurumenari lotutako alderdi guztiei buruzko informazioa eta gizartean eta ingurumenean duten edo eduki dezaketen eraginei buruzko informazioa.

2.5. Portaera etikoa

Eikaren portaera pertsonen duintasunean, berdintasunean eta osotasunean oinarritzen da.

Horretarako Gestio Eredua garatu du eta Eikako Balioak definitu ditu.

2.6. Alde interesdunen interesak

Eikak Interes Taldeak identifikatu ditu, eta baita haien premiak eta espektatibak ere; dokumentu honetan daude jasota:

DC-07.36.01 INTERES TALDEAK eta haien PREMIAK.

Eikak interes taldeak eta haien legezko eskubideak onartu eta errespetatzen ditu.

2.7. Legezketasunaren printzipioa

Eikak legezketasunaren printzipioari heldzen dio. Hau da, aplikatzen zaizkion lege eta arau guztiak betetzen ditu.

2.8. Portaerari buruzko nazioarteko arauak

Eikak portaerari buruzko araudi internazionala errespetatu eta betetzen du.

2.9. Giza eskubideak

Eikak giza eskubideak errespetatzen ditu, eta portaera etikoaren jarraipena egiteko eta indartzeko informazio eta kontrol bideak dauzka.

3. TRANSAKZIOAK ETA KONTROLAREN MARKO OROKORRA

3.1. Printzipio orokorra: indarrean dagoen legeria betetzea

Eikaren intereserako egiten den edozein transakziok aplikagarria zaion indarreko legeria bete beharko du eta auditagarria izan beharko da.

3.2. Baimena eta transakzio guztien kopia

Transakzio guztiak kontabilizatu egin behar dira. Kasu guztietan transakzioaren egileak, transakzioa baimendu zutenak eta transakzioa grabatu eta artxibatu zutenak identifikagarriak izan beharko dira.

3.3. Kontrol agenteekiko lankidetzatza

Eikak barruko auditoreekin edota kanpoko agenteekin partekatzen duen informazioa eguneratuta egon beharko da, egiazkoa eta zorrotza izan beharko da, pertsona egokiek landutakoa, eta legeria bete beharko du.



JOKABIDE KODEA

KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUA

4. GIZA BALIABIDEAK

4.1. Printzipio orokorra

Eikak Giza Eskubideen Deklarazioaren oinarritzko printzipioak onartzen ditu, NBEk emandako definizioaren arabera (Nazio Batuen Erakundea, 1948).

4.2. Aplikatu beharreko legeria

Eika taldeko pertsona guztiak indarrean dagoen legeriaren arabera kontratatuta egongo dira, eta kontratu bat egon beharko da jasota idatziz (edo dokumentu baliodun bat).

4.3. Konpentsazioa

Eikan, lansariak, ordu estrak edo irabaziak barne, araudi eta lege aplikagarriek eskatzen duten mailakoak izango dira edo handiagoak.

4.4. Lan orduak

Eikako langileen lanaldia edo lan egutegia ez da legeak ezartzen duen muga baino handiagoa izango inoiz.

4.5. Behartutako lanak

Eikan debekatuta dago behartutako edozein lan. Lan horien artean daude zigortzeko ezarritako derrigorrezko lana, laneko morrontza edo beste edozein morrontza mota.

4.6. Haurren lana

Eikan debekatuta dago haurrek lan egitea. Tokiko legeriak lanerako adin muga handiagoa ezarri ezik, ezin izango da derrigorrezko hezkuntza osoa egin gabe dagoen adin txikiko inor edo 15 urtetik beherako inor lanean jarri (OIT erakundearen 138 zenbakiko Hitzarmenak aurreikusitakoa izan ezik). 18 urtetik beherako langileek ez dute lan arriskutsurik egingo eta gauzez lan egitetik libre egon daitezke, heziketa premiari aintzat hartzeagatik.

4.7. Jazarpena

Pertsona bakoitzaren duintasuna, pribatutasuna eta eskubide pertsonalak errespetatuko dira. Eikako langile bati ere ez zaio zigor fisikorik ezarriko, ezta jazarpenik egingo ere, ez ahoz, ez psikologikoki, ez sexualki, ez fisikoki, ezta inolako abusurik ere.

4.8. Diskriminaziorik ez

Eikak ez du langilerik diskriminatuko larruazalaren kolore, arraza, nazionalitate, jatorri sozial, ezintasun, orientazio sexual, sinesmen politiko edo erlijioso, genero eta adinagatik. Enpleguari lotutako edozein erabakitarako, besteak beste kontratazio, sustapen, konpentsazio, irabazi, prestakuntza, kaleratze eta kontratu amaierekin lotutako erabakiak, beraien ezgaitasunak eta kalifikazioak baino ez zaizkie aintzat hartuko.

4.9. Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa

Eikak elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako duten eskubidea errespetatuko die langileei.

5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Eika behartuta dago langileei lan ingurune segurua eta osasungarria eskaintzera, istripuak eta lesioak prebenitzeko, eta arriskuak minimizatzen, eta, aplikagarria den guztietan, egoitza instalazio seguru eta osasungarriak ere eskaini beharko dizkie, gutxienez indarrean dagoen tokiko legea beteta.

Laneko segurtasuna kudeatzeko ISO 45001 arauaren arabeko sistema bat edo antzeko bat aplikatuko da.

Eikak Laneko Segurtasun eta Osasunari lotutako legezko ikuskapenak beteko ditu, eta ziurtatuko du ikuskapenetatik eratorritako ekintza zuzentzaileak beteko direla, ekintza horiek dokumentatuta eta ezarritako epeetan beteta.

6. INGURUMENA

Eikak ingurumeneko araudiak eta bere jardueran aplikatu beharreko arauak beteko ditu, eta ingurumenarekin modu arduratsuan jokatu du jardueraren bat garatzen duen leku guztietan.

Eikak ingurumena ahalik eta gutxien kutsatzea bultzatuko du, eta baita ingurumena babesteko etengabeko hobekuntza ere.

Ingurumenaren kudeaketarako ISO 14001 arauaren arabeko sistema bat edo antzeko bat aplikatuko da.

Eikak Ingurumenari lotutako legezko ikuskapenak beteko ditu, eta ziurtatuko du ikuskapenetatik eratorritako ekintza zuzentzaileak beteko direla, ekintza horiek dokumentatuta eta ezarritako epeetan beteta.

7. HORNIKUNTZA KATEA

Eikak Jokabide Kode honen baldintzak onartzea eta errespetatzea bultzatuko du bere hornikuntza kate osoko parte hartzaileekin.

